



2021-2-22 UDAL BATZARRA

1. Udalbatzak 2021eko urtarrilaren 15 eta 25ean egindako bilkurei dagozkion akta-zirriborroak onartzea.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 13 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (5).
KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: 4 - EH Bildu (3), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

1. Alkatetzak emandako ebazenen kontu-estatea.

Udalkideak jakinaren gainean geratu dira.

3. Kontu-estatea. Kontu-hartzaleak egindako txostena: eragozpen-oharra.

ERAGOZPEN-OHARRA
(1-2021)

22-2-2021 PLENO MUNICIPAL

1. Aprobación de los borradores de actas correspondientes al 15 y 25 de enero de 2021.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 13 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (5).
VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: 4 - EH Bildu (3), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

2. Dación de cuentas de Resoluciones de Alcaldía.

Los miembros de la Corporación se dan por enterados.

3. Dación de cuentas. Informe emitido por el Interventor: Nota de reparo.

NOTA DE REPARO
(1-2021)

Joan den urtarrilaren 19an Udalaren web orrian argitaratutako iragarki batean ezartzen da, alarmak dirauen bitartean, Portaleko udal aretoak doakoak izango direla bilerak egiteko, dagokion batzordeak aldez aurretik horren inguruko irizpenik egin gabe.

Eta, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Errege Dekretuaren 215. artikuluaren eta abenduaren 27ko 32/2015 Foru Dekretuaren arabera —Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko era-kundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautu eta Gipuzkoako toki-erakundeen kontabilitatearen arau-esparra onartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena— egiten dut honako txosten hau.

En relación, al anuncio publicado en la página web del ayuntamiento el pasado 19 de enero, mediante el cual se establece, sin previo dictamen de la comisión correspondiente, la gratuitidad del uso de los espacios municipales de Portalea para celebrar reuniones mientras dure el estado de alarma.

Y, de conformidad con el artículo 215 del Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, y el artículo 10 del Decreto Foral 32/2018, de 27 de diciembre, por el que se regula el régimen jurídico del control interno en las entidades del Sector Público Local de Gipuzkoa y se modifica el Decreto Foral 86/2015, de 15 de diciembre, por el que se aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales de Gipuzkoa se emite la siguiente

ERAGOZPEN-OHARRA

LEHENA. Kontu-hartzaitza organoaren iritziz, nahiz eta Covid-19 birusak eragindako osasun-krisiak eta agintarietako birusaren hedapena geldiarazteko jarritako murrizketak, batzuetan, herriarrek biltzeko duten eskubideaz baliatzeko eragozpen bat izan, iragarki horretan aipatzen den prezio publikoaren araudiak inola ere ez du aurreikusten hobari osoa.

NOTA DE REPARO

PRIMERO. A juicio del órgano de intervención, pese a que la crisis sanitaria generada por el virus Covid-19 y las restricciones impuestas por las autoridades para frenar la expansión del virus está suponiendo, en ocasiones, un impedimento a la hora de ejercer el derecho a reunión de los ciudadanos, la normativa del precio



Araudi hori, nagusiki, foru-dekretu hauek arautzen dute:

Bata: 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituena, zeinak 45. artikuluan hauxe dioen: “*Prezio publikoen ordainketa egin beharra izango dute, jabari publikoa onura partikularrez eta era bereziz gozatu, erabili edo aprobetxatzen dituztenek edo eta prezio publikoak ordaindu beharra duten zerbitzu eta jardueren onura izan dezaketenek.*”

Bi. 2/1990 Foru Araua, urtarrilaren 11koa, Tasena eta Prezio Publikoena, zeinak 25.1 artikuluan hauxe dioen: “*Prezio publikoak, gutxienez, jarduerak egin edo zerbitzuak ematearen kostu ekonomikoak estaltzeko adinakoak izango dira edo, bestela, zerbitzu edo jardueren erabilgarritasunaren maila baliokidea izango dute.*”

público, a la que hace referencia el anuncio, no prevé la bonificación total en ningún supuesto.

Dicha normativa queda regulada principalmente por los siguientes decretos forales:

Uno. Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, dónde, en el artículo 45 indica lo siguiente: “*Estarán obligados al pago de los precios públicos quienes disfruten, utilicen o aprovechen especialmente el dominio público en beneficio particular, o se beneficien de los servicios o actividades por los que deban satisfacerse aquéllos.*”

Dos. Norma Foral 2/1990, de 11 de enero, de Tasas y Precios Públicos, dónde, en el artículo 25.1 indica lo siguiente: “*Los precios públicos se determinarán a un nivel que cubra, como mínimo, los costes económicos originados por la realización de las actividades o la prestación de los servicios o a un nivel que resulte equivalente a la utilidad derivada de los mismos.*”

Beraz, prezio publikoak arautzen dituen Foru Dekretu Arauemaileetan ez dagoenez horren inguruko araudirik, ez eta zerbitzuak emateagatiko edo udal jarduerak egiteagatiko prezio publikoak arautzen dituen Ordenantzan ere (zehazki Portalean espazioak erabiltzeko eranskinari dagokionez), proposatutako ekimena ez dator bat Zuzenbidearekin; beraz, aurretik deskribatu den bezala, ez dago prezio publikoaren hobari osoa ezartzerik.

Hori esan ondoren, etorkizuneko ekitaldiei begira, Gobernu Batzarrak edo Kultura Batzordeak proposatutako ekimena aurerra eraman nahi izanez gero —**aurretik, zerbitzuak emateagatiko edo udal jarduerak egiteagatiko prezio publikoak arautzen dituen Ordenantza aldatuta**—, 2/1990 Foru Arauaren 25.2 artikuluak jasotakora jo daiteke: “*Bidezko gizarte, ongintza, kultur edo herri onurako arrazoia daudenean, aurreko apartatuan jasotako parametroak baino txikiagoak diren prezio publikoak jarri ahal izango dira. Dena den, administrazioak subentzionatutako prezioaren zatia estaltzeko behar diren aurrekontu neurriak hartuko dira aurretik.*”

Halaber, ez dago, besteak beste, prezio publikoa hein batean murriztea ahalbidezten duen ordenantzaren aldaketarik.

Por lo tanto, no existiendo encaje normativo dentro de los Decreto Foral Norma que regulan los precios públicos ni tampoco en la ordenanza reguladora de los precios públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades municipales, en concreto en lo referido al Anexo de utilización de espacios en Portalea, la iniciativa propuesta no es conforme a derecho, y, por ende, como se ha descrito anteriormente, no cabe bonificación total del precio público.

Dicho esto, para futuros ejercicios, de querer la Junta de Gobierno o Comisión de Cultura llevar a cabo la iniciativa propuesta, **previa modificación de la ordenanza reguladora de los precios públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades municipales**, cabría acogerse a lo indicado en el artículo 25.2 del DFN 2/1990: “*Cuando existan razones sociales, benéficas, culturales o de interés público que así lo aconsejen, podrán señalarse precios públicos que resulten inferiores a los parámetros previstos en el apartado anterior, previa adopción de las previsiones presupuestarias oportunas para la cobertura de la parte del precio subvencionada.*”

No obstante, no existe, entre otras, modificación de la ordenanza que permita la reducción parcial del precio público.



BIGARRENA. Abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuaren 12. artikuluaren arabera, Gipuzkoako Toki Sektore Publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautu eta Gipuzkoako toki-erakundeen kontabilitateari buruzko erregulazio-esparria arautzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluarekin lotua, **HONAKO ERAGOZPEN-IDATZI HAU EGITEN DUT**, aplikatzekoa den udal araudian sartzen ez den prezio publikoaren hobari osoa delako.

HIRUGARRENA. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.4 artikuluak ezarritakoaren arabera, eragozpenak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, toki-entitateko lehendakariak ebatzi beharko du desadostasuna; eta ebatzen hori betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hori ezingo da inolaz ere eskuordetu. Aurreko eragotzi gabe, desadostasun bat dagoelean, toki-entitateko lehendakariak txosten ahal izango dio Gipuzkoako

SEGUNDO. De conformidad con el artículo 12 del Decreto Foral 32/2018, de 27 de diciembre, por el que se regula el régimen jurídico del control interno en las entidades del Sector Público Local de Gipuzkoa y se modifica el Decreto Foral 86/2015, de 15 de diciembre, por el que se aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales de Gipuzkoa; en relación con el artículo 70.3 de la *Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa*, **FORMULO ESTE ESCRITO DE REPARO**, por ser una bonificación total de precio público que no tiene cabida en la normativa municipal aplicable.

TERCERO. De conformidad con el artículo 70.4 de la *Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa*, si el órgano a que afecte el reparo no esté de acuerdo con el mismo, corresponderá al Presidente de la Corporación resolver la discrepancia, siendo su resolución ejecutiva. Esta facultad no será delegable en ningún caso. Sin perjuicio de lo anterior, cuando exista una discrepancia, la Presidencia de la entidad local podrá solicitar informe al órgano de control

Foru Aldundiko kontrol-organoari, arau-dian ezarritako prozedurari jarraituz.

de la Diputación Foral de Gipuzkoa, conforme al procedimiento que reglamentariamente se establezca.

LAUGARRENA. *Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikuluak ezarritakoari jarreraikiz, Kontu-hartzailetzako organoak txostenetan helaraziko dio Udalbatzarrari edo organo baliokideari, adierazitako eragozpenen kontra toki-entitateko lehendakariak hartutako eba-zpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreren arloan atzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketen aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.*

Apartatu honetan jasotakoak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Toki-entitateko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzalea aurkeztu ahal izango du Udalbatzarrean edo organo baliokidean.

CUARTO. De conformidad con el artículo 70.6 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, el órgano interventor elevará informe al Pleno u órgano equivalente de todas las resoluciones adoptadas por la Presidencia de la entidad local contrarias a los reparos efectuados, así como un resumen de las principales anomalías detectadas en materia de ingresos. Dicho informe atenderá únicamente a aspectos y cometidos propios del ejercicio de la función fiscalizadora, sin incluir cuestiones de oportunidad o conveniencia de las actuaciones que fiscalice.

Lo contenido en este apartado constituirá un punto independiente en el orden del día de la correspondiente sesión plenaria.

La Presidencia de la entidad local podrá presentar en el Pleno u órgano equivalente informe justificativo de su actuación.

BOSGARRENA. *Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.7 artikuluak ezarritakoari jarreraikiz, Kontu-hartzailetzako organoak, toki-entitateko lehendakariaren bitarte, txosten bat helaraziko dio urtero Herri Kon-*

QUINTO. De conformidad con el artículo 70.7 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, el órgano interventor, por mediación de la Presidencia de la entidad local, remitirá anualmente al Tribunal Vasco



tuen Euskal Epaitegiari, adierazitako era-gozpenen kontra toki-entitateko lehenda-kariak eta Udalbatzarrak edo organo bali- okideak hartutako ebazen eta akordio guztien inguruan; halaber, diru-sarreren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio.. Dokumentazio horrekin batera, hala badagokio, toki-entita-teak aurkeztutako justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira.

Eragozpen-ohar hau egiten da Zuzenbi-dean hobeto oinarritutako beste iritzi batikalterik egiteke.

Eibar, 2021eko otsailaren 8an

Kontu-hartzailea,

Udalkideak jakinaren gainean geratu dira.

4. Eibarko Udalaren eta Gurutze Go- rriaren arteko lankidetza-hitzar- mena, nazioarteko babesa eskatzen dutenentzako edota errufuxiatuen- tzako aldi baterako harrera-proiek- tua garatzeko.

de Cuentas Públicas todas las resolu-ciones y acuerdos adoptados por la Presi-dencia y por el Pleno u órgano equivalente de la entidad local contrarios a los reparos formulados, así como un resumen de las principales anomalías detectadas en ma-teria de ingresos. A la citada documenta-ción deberá acompañar, en su caso, los informes justificativos presentados por la entidad local.

Esta nota de reparo se emite sin perjuicio de otra opinión mejor fundada en Derecho.

En Eibar, a 8 de febrero de 2021

El Interventor,

Los miembros de la Corporación se dan por enterados.

4. Convenio de colaboración entre el Excmo Ayuntamiento de Eibar y Cruz Roja para el desarrollo del proyecto de acogida temporal para solicitantes de protección Internacional y/o refugiados.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 17 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (3), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

Gizartekintza Batzordeak proposatzen du honako hau onartzea: “*Lankidetza-hitzarmena, Eibarko Udalaren eta Gurutze Gorriaren artekoa, nazioarteko babes eta eskatzen dutenentzako eta/edo errefuxiatuentzako aldi baterako harrera-proiektua garatzeko*”.

Hitzarmenaren xedea da bizigarritasun-baliabide bat ematea nazioarteko babes eta asiloa eskatzen dutenentzako harrera-programatik eratorritako pertsonei, udal titulartasuneko hiru etxebizitza eskuragarri jarriz.

Ikusita expedienteari atxiki zaizkion dokumentuak

- Alkatearen justifikazio-memoria.
- Idazkaritzaren txostena.
- Kontu-hartzailearen txostena.

Ondorioz, kontuan hartuta 2021eko otsailaren 15eko Ogasun eta Ondarearen Lan Batzordearen aldeko irizpena.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 17 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (3), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).

La comisión de Servicios Sociales propone la aprobación del “*Convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Eibar y Cruz Roja para el desarrollo del proyecto de acogida temporal para solicitantes de protección internacional y/o refugiados*”.

El objeto del mismo es proporcionar un recurso de habitabilidad a las personas derivadas del programa de acogida a solicitantes de protección internacional y asilo, mediante la disposición de tres viviendas de titularidad municipal.

Vistos los documentos que acompañan al expediente

- Memoria justificativa de Alcaldía,
- Informe de Secretaría,
- Informe del Interventor

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Hacienda y Patrimonio, de 15 de febrero de 2021.



Udal Osoko bilkurak honako erabakia
hartu du

El Pleno Municipal adopta el siguiente

ERABAKIA

Onartzea goian adierazitako hitzarmena,
Gurutze Gorriari 3 etxebizitza doan laga-
tzeko, 2 urteko aldi baterako erabilera:

- Artegieta 7, 4. C,
- Artegieta 7, 2. D eta
- San Juan 5, 3. B.

ACUERDO

La aprobación del convenio en la cabe-
cera indicado, para la cesión a Cruz Roja
durante 2 años de uso temporal gratuito
de 3 viviendas:

- Artegieta 7, 4ºC,
- Artegieta 7, 2ºD y
- San Juan 5, 3ºB-

GAI-ZERRENDATIK KANPO

FUERA DEL ORDEN DEL DÍA

**A) EIBARKO 2021eko AURREKONTU
OROKORRARI JUAN LUIS TUEROS
ORMAETXEA JAUNAK EGINDAKO
ALEGAZIO-IDATZIA.
UDAL AURREKONTUAREN BEHIN BE-
TIKO ONARPENA.**

**A) ESCRITO DE ALEGACIONES PRE-
SENTADAS AL PRESUPUESTO GENE-
RAL DE EIBAR 2021 POR D. JUAN LUIS
TUEROS ORMAETXEA.
APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PRE-
SUPUESTO MUNICIPAL**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 8 - PSE-EE (PSOE).
KONTRAKO BOTOAK: (0).

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APRO-
BADA.**

VOTOS A FAVOR: 8 - PSE-EE (PSOE).
VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENTZIOAK: 9 - Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (3), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordeko kide diren zinegotziek bilera egin aurettik izan dute eskuan Juan Luis Tueros Ormaetxea jaunak Txontako bizilagunen "La Plazoleta" Elkartearen izenean aurkeztutako idatzia, Eibarko 2021eko Aurrekontu Orokorrari egindako alegazioak dakarrena; baita kontu-hartzaile jaunak idatziaren inguruan egin duen txostena.

Gaiaren inguruan eta esandako txosten horietan jasotako irizpideei buruz eztabaidatu da.

Ondorioz, kontuan hartuta 2021eko otsailaren 22ko Ogasun eta Ondarearen Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Udal Osoko bilkurak honako erabakia hartu du

ERABAKIA

1.- Ez onartzea Juan Luis Tueros Ormaetxea jaunak aurkeztutako alegazioak, alegazio horietan ez delako islatzen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Araua-

ABSTENCIONES: 9 - Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (3), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

Los Concejales miembros de la comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio han dispuesto con anterioridad a esta reunión del escrito presentado por D. Juan Luis Tueros Ormaetxea en nombre de la Asociación de Vecinos de Txonta. La Plazoleta, referido a las alegaciones al Presupuesto General de Eibar 2021, así como el informe emitido por el Sr. Interventor.

Se ha debatido el tema y sobre los criterios y consideraciones recogidos en los citados informes.

En consecuencia, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Hacienda y Patrimonio, de 22 de febrero de 2021.

El Pleno Municipal adopta el siguiente

ACUERDO

1.- Inadmitir las alegaciones presentadas por D. Juan Luis Tueros Ormaetxea, por considerar que las mismas no constituyen ninguno de los motivos recogidos por el artículo 17.2 de la Norma Foral 21/2003 Presupuestaria de las Entidades Locales



ren 17.2 artikuluak aurrekontuari erreklamazioak aurkezteko jasotzen dituen arrazoi horietako bat bere ere.

2.- Behin betiko onarpena ematea Eibarko Udalaren 2021. jardunaldirako Aurrekontu Orokorrari, hasierako onespenean jasotako eran.

B) 2021eko MARTXOAREN 8a DELA-ETA EIBARKO UDALAREN ADIERAZ-PENA

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 17 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (3), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

ZAINTZA BERDINTASUNEAN. Emakumeen egitekoa Pandemian eta zaintza-ren Krisi Globalean

Dimentsio askoko krisi sistemikoan gaude, zeina gurutzatu eta erlazionatu egiten baita aurretik zeuden beste krisi batzuekin; esaterako, ekologikoa eta zaintza-arlokoa.

del Territorio Histórico de Gipuzkoa, para presentar reclamaciones al presupuesto.

2.- Aprobar definitivamente el Presupuesto General del Ayuntamiento de Eibar para el ejercicio 2021, en los términos planteados en la aprobación inicial.

B) DECLARACIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE EIBAR CON MOTIVO DEL 8 DE MARZO 2021

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 17 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (3), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).

CUIDADOS EN IGUALDAD. El papel de las mujeres durante la Pandemia y la Crisis Global de los cuidados

Vivimos una crisis multidimensional, sistémica, que se cruza e interrelaciona con otras crisis que ya venían de antes, como la ecológica y de cuidados. La pandemia

Pandemiak agerian utzi ditu mugimendu feminista eta emakumeen kolektiboak egiten ari ziren zenbait aldarrikapen: giza bizitza zaugarria da, eta giza ingurunearren, ingurumenaren eta ingurune komunitarioaren zeharo mendekoa. Ezerk ez du garrantzi handiagoa izan behar bizitza zaintzeak baino, pandemia dela-eta muturre-raino prekario bihurtu eta ahuldu den bizi-tza.

Gaur, martxoak 8, Emakumeen nazioarteko egunean, pandemiak eta haren kudeaketak baldintzatutako urte honetan, aintzat hartu beharra dago emakumeek pandemia eta beraren ondorioak borrokatzeko mundu osoan egindako ekarpena. Zaintzaren ardura emakumeei egokitu zaie, bai zerbitzu publikoetan (osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, merkataritza eta elikadura...) bai etxeen barruan, eta batez ere haien eraman dute krisi sanitario eta sozial honetan funtsezkoak izan diren zerbitzu askoren zama. Emakumeen artean ere banaketa desorekatua da, klase sozialaren, arrazializazioaren eta migracio-estatusaren arabera. Gainera, kasurik gehienetan egoera prekarioan egindako lanak dira.

Berdintasunik gabeko banaketa horrek, gainkargaz gain, eta hark emakumeen osasunari eta bizi-kalitateari dakarzkien

ha puesto en evidencia reivindicaciones que desde el movimiento feminista y los colectivos de mujeres se venían haciendo: la vida humana es vulnerable y profundamente dependiente del entorno humano, medioambiental y comunitario. Nada debe ser más importante que el cuidado de la vida, una vida que se ha precarizado y debilitado al extremo con la pandemia.

Hoy 8 de marzo, en el día internacional de las Mujeres, en este año marcado por la pandemia y su gestión, corresponde hacer un reconocimiento a la aportación de las mujeres a la lucha para combatir la pandemia y sus consecuencias en todo el mundo. La provisión de los cuidados ha recaído en las mujeres, tanto en los servicios públicos (sanidad, educación, servicios sociales, comercio y alimentación,...) como en el interior de las casas, siendo ellas las que se han cargado mayoritariamente de muchos de los servicios que han resultado esenciales en esta crisis sanitaria y social. Incluso el reparto entre las mujeres se da de forma desequilibrada, por clase social, por racialización y estatus migratorio. Por si fuera poco, en la mayoría de los casos se trata de trabajos en condiciones precarias

Este desigual reparto, además de la sobrecarga y sus consecuencias sobre la salud y calidad de vida de las mujeres,



ondorioez gain, zaintza-sistemaren prekaritatea ere azaleratu du, eta lehendik ere bazeuden desberdintasunak areagotu ditu. Gure gizarte-ereduak familiaren, eta, neurriz kanpoko proportzioan, emakumeen esku uzten ditu zaintza gehienak, bai ordainpekoak bai ordaingabeak; oso gutxi ematen dira eremu publikoan. Bestalde, egoera eta estatus okerreneko emakumeek (guraso bakarreko familien burruak, behartsuenak, kolektibo zaurgarrietakoak, indarkeria matxistaren biktimak...) neurri handiagoan jasaten dituzte zaintza-zamaren ondorio negatiboak.

Ondorioz, gizartea bere aitorpena adierazteko moduak konpromiso irmoa izan behar du, berdintasunik gabeko banaketa bidegabe horri euskarria ematen dioten genero-arrakalak borrokatzeko konpromisoa. Desberdintasun horiek agerikoak dira emakumeek funtsezko zerbitzuetan egiten duten lanaren baldintzen prekaritateari begiratuz gero. Bada garaia zaintza-lan guztiei dagokien balioa emateko, eta aurrera egiteko erantzunkidetasun handiagoko eredu baterantz, pertsona guztientzat ekitate eta ongizate handiagoa sortzeko.

también ha desvelado la debilidad del sistema de cuidados, profundizando en las desigualdades que ya venían existiendo. Nuestro modelo social hace recaer la mayor parte de los cuidados en el ámbito familiar y de forma desproporcionada sobre las mujeres, tanto los no remunerados como los remunerados, siendo minoría los que se atienden en lo público. Asimismo, las mujeres en peor situación y posición (las cabeza de familias monoparentales, las más pobres, las de colectivos vulnerables, las víctimas de violencia machista...) sufren en mayor medida los negativos efectos de la provisión de los cuidados.

Por tanto, el reconocimiento social debe expresarse en forma de un férreo compromiso público para combatir las brechas de género que sostienen este reparto desigual e injusto. Unas desigualdades que se manifiestan en la precariedad de las condiciones del trabajo que desempeñan las mujeres en los servicios esenciales. Es tiempo de poner en su justo valor todos los trabajos de cuidado y avanzar hacia un modelo más corresponsable que genere más equidad y bienestar entre todas las personas.

Udalak gaude lehen Ierroan, pandemiari eta hark pertsonengan dituen ondorioei aurre egiten, eta liderrak izan behar dugu zaintzari eta haren hornikuntzari buruzko politika publikoak bultzatzeko orduan, erantzunkidetasun publikotik abiatuta, eta arreta emanet gizon eta emakumeen bal-dintza eta inpaktu desberdinei.

Erakundeok koordinatuta egoten jarraitu behar dugu, eta bideak zabaldu behar ditugu herriarrek, eta bereziki mota askotako emakumeen kolektiboek eta mugimendu feministak, benetan eta modu era-ginkorrean parte har dezaten erabaki publikoetan.

Horregatik guztiagatik, Eibarko Udal honek, bere eskumenen esparruaren barruan, honako konpromisoak hartzen ditu:

- Gizartean zaintza antolatzeko **ereduari buruzko eztabaidea** bultzatzea eta eztabaida horretan buru izatea, bizitza erdigunean jartzean oinarritzen den ikuspuntu feminista batetik abiatuta, zaintzaren erantzunkidetasun sozial eta komunitario-ranzko bidean.
- **Analisia** egitea, genero-ikuspuntutik, kolektibo zaurgarrien egoerari eta beharrizanei buruz, baita COVID-19aren ondorioei buruz ere, eta horiei aurre egiteko premiazko **neurriak martxan jartzea**.

Los Ayuntamientos, que somos los que estamos en primera línea para combatir la pandemia y sus consecuencias sobre las personas y comunidades, debemos liderar el impulso de las políticas públicas sobre los cuidados y su provisión, desde la corresponsabilidad pública y atendiendo a las diferentes condiciones e impactos en hombres y mujeres.

Las instituciones tenemos que seguir coordinadas y abrir vías para una efectiva y real participación de la ciudadanía en las decisiones públicas, en particular de los colectivos diversos de mujeres y del movimiento feminista.

Por todo ello, este Ayuntamiento de Eibar, en el marco de sus competencias, se compromete a:

- Impulsar/liderar el **debate sobre el modelo** de organización social de los cuidados desde un enfoque feminista basado en la centralidad de la vida y la corresponsabilidad social y comunitaria en el cuidado.
- **Analizar** con enfoque de género la situación y necesidades de los colectivos más vulnerables y los efectos de la COVID-19, y **poner en marcha medidas** urgentes para hacerles frente.



- COVIDaren krisiaren eragina arintzeko onartzen diren neurri guztieta genero-ikuspuntu gehitzen dela bermatzea, **languitzez eta babes-programez** den bezainbatean.
- Konponbide bideragarriak aztertzea eta ezartzea **adingabekoentzako eta mendekotasuna dutenen zaintzari languitzeko** tokiko zerbitzuentzat, zaintza baldintza duin eta bidezkoetan egin dadin sariatuz edo/eta erraztuz, bai ematen dueñarentzat bai jasotzen duenarentzat ere.
- **Udalenean Berdintasun-plangintzetan**, espresuki azpimarratzea emakumeen ahalduntzea, zaintzaren balioa, eta hari dagokionez gizonek duten **erantzunkidestasuna**.
- Berdintasuneko tokiko politikak garatzeko eta generoa tokiko politika guztieta zehar-lerroa izateko erabiltzen diren **giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak** sendotzea eta babestea.
- Tokiko **zaintza-sare komunitarioei** babesa ematea.
- Garantizar la **incorporación del enfoque de género** en todas las medidas que se aprueben para paliar los efectos de la crisis del COVID en materia de **ayudas y programas de apoyo**.
- Estudiar y articular soluciones viables para los servicios locales de **apoyo al cuidado de menores y personas dependientes**, procurando y/o facilitando el cuidado en condiciones dignas y justas, para quien lo da, y para quien lo recibe.
- Incidir en los **Planes de Igualdad municipales** de manera expresa, en el **empoderamiento** de las mujeres, la puesta en valor de los cuidados y la **corresponsabilidad** de los hombres en los mismos.
- Reforzar y preservar el **personal y recursos técnicos y económicos** para el desarrollo de las políticas locales de igualdad y de la transversalización de género en todas las políticas locales.
- Apoyar a las **redes comunitarias de cuidados** a nivel local.

5. Galderak eta erreguak.

5. Ruegos y Preguntas.